

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 63/2018 Foru Dekretua, abenduaren 18koa. Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzea, seigarren plangintzaldirako (2018-2022)**

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, euskararen erabilera normalizatzekoak, zenbait betebeharrak ezarri zituen herri administrazioentzat herritarrei hizkuntza eskubideak aitortzearen ondorioz. 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, euskal herri administrazioetako lanpostuen zerrendetan, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasunak direla eta, jaso behar ziren betekizunak xedatu zituen.

Lege horietan xedatutakoa garatzeko, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

Dekretu horrek euskal herri administrazioek euskararen erabilera normalizatzeko kon-tuan hartu beharreko araubide esparru orokorra ezarri zuen. Horrez gain, herri administrazio bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartzeko betebeharrak xedatu zuen, bai eta planek izan beharreko gutxieneko batzuk ere. Era berean, Dekretuak ezarritakoaren arabera, hizkuntza normalizatzeko egitarauen jarduerak denboran barrena antolatu ahal izateko, bost urteko iraupena izango duten plangintzaldiak eratuko dira.

Geroago, Arabako Biltzar Nagusiek 10/1998 Foru Araua onartu zuten, Arabako foru adminis-trazioan eta lurralde historikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa, foru araudia goian aipaturiko Dekretuan xedatutakora egokituz.

Ondorioz, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuor-detzaren derrigorrezko txostena jasota, Arabako Foru Aldundian Euskararen Erabilera Norma-lizatzeko Plana onartu behar da, seigarren plangintzaldirako.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldun-diaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluak, uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri zituen eta, otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren proposamenez eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean Euskararen Erabi-lera Normalizatzeko Plana, seigarren plangintzaldirako (2018-2022). Foru Dekretu honi erantsita dago plana.

Bigarrena. Agintzea ALHAOn argitara dadila, 1/2017 Foru Araua, gardentasunarena, herri-tarren parte-hartzearena eta gobernu onarena, aplikatzearen ondoriozko publizitate aktiboko indarreko eskakizunei jarraituz.

Hirugarrena. Foru dekretu hau onetsi eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean, ALHAOn noiz argitaratzen den gorabehera.

Gasteiz, 2018ko abenduaren 18a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Funtzio Publikoko zuzendaria*

**ADOLFO LANDER VERA**

## **ERANSKINA**

### **ARABAKO FORU ALDUNDIKO ADMINISTRAZIO OROKORREAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA**

#### **VI. PLANGINTZALDIA (2018-2022)**

#### **AURKIBIDEA**

1. Aurrekariak
2. Planaren helburu nagusia
3. Zeharkakotasuna
4. Planaren eragin epea eta eremua
5. Planaren egitura
6. Hizkuntza egoera VI. plangintzaldiaren hasieran
7. Unitateen izaera
8. Indize berria eta derrigortasun datak
9. Atal elebidunak, erabilera mikroplanak eta lehentasunak
10. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak
11. Planaren jarraipena eta ebaluazioa
12. Baliabideak
13. AFAREN erakunde autonomoak
14. Sozietate publikoak
15. Komunikazioa

## 1. Aurrekariak

### 1.1 Lege arauak.

Euskararen ofizialtasunaren araubide juridikoa Espainiako Konstituzioan, Autonomia Estatutuan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legean eta Euskararen Foru Arauan ezartzen da.

Konstituzioak 3.2 artikuluan xedatzen duenez, gaztelaniaz gain Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak dira dagozkien autonomia erkidegoetan, bertako Estatutuen arabera.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak 6. artikuluan dio euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala dela, eta Euskadiko biztanle guztiek dutela bi hizkuntzak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Hori bermatzeko, Autonomia Erkidego osoko erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dutela dio, eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituztela.

Estatutuaren agindu hori garatzeko xedearekin onartu zen Eusko Legebiltzarrean azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa. Bi dira lege horren xede nagusiak: hizkuntza ofizialtasun bikoitza arautzea batetik, eta bestetik, euskararen erabilera normalizatzea; horregatik, haren artikuluetan behin eta berriz agertzen dira botere publikoek dituzten zereginak euskararen erabilera bultzatzeko.

Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, xedatzen du lanpostu zerrendetan lanpostuen hizkuntza eskakizuna eta, hala badagokie, derrigortasun data zehaztu behar direla. Horrela, sistema berri bat ezartzen da funtzio publikoko arloan, hizkuntzaren alderdia jasotzen duena.

Langintza hori guztia arautzen du, gaur egun, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Elkarteko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak. Bertan, xedatzen da bost urteko iraupena izango duten plangintzaldiak ezarriko direla eta herri administrazioek euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko dutela plangintzaldi bakoitzean. Gainera, langileen hizkuntza gaitasunaz harago doazen beste kontzeptu batzuk jasotzen dira: unitateen izaera, nahitaez bete beharreko indizea, indizearen arabera helburu mailakatuak...

Aipatutako arautegia Foru Administrazioa egokitzeko, Batzar Nagusiek 10/1998 Foru Araua onartu zuten, Arabako Foru Administrazioan eta Lurralde Historikoan euskararen erabilera normalizatzeko.

### 1.2 Aurreko plangintzaldiak.

Lehenengo plangintzaldiari (1990-1995) ekitean, hizkuntza eskakizunak esleitu eta derrigortasun datak ezarri ziren.

Bigarren plangintzaldian (1995-2002) langileen hizkuntza prestakuntzarekin jarraitu zen eta hainbat derrigortasun data ezarri ziren. Gainera, lanean euskararen erabilera sustatzeko, ALET programa (Administrazioako Langileen Euskarazko Trebakuntza) jarri zen abian.

Hirugarren plangintzaldian (2003-2007) AFAko lehenengo euskara plan formalizatua egin zen eta aurrerapauso nabarmena izan zen hizkuntza normalizazioaren bidean, izan ere, hainbat atal elebidun eta erabilera mikroplan abiarazi ziren.

Laugarren plangintzaldian (2008-2012) hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezarri ziren AFAREN era guztietako harremanetarako, elebitasuna bermatzeko ezinbesteko tresna.

Bosgarren plangintzaldian (2013-2017) hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen zabalkunde eta aplikazioan aurrera egin zen, eta horren ondorioz, zenbait lan prozeduratan txertatu egin ziren.

## **2. Planaren helburu nagusia**

Herritarrak eskubidea du erakundearekin zein hizkuntza ofizial erabili aukeratzeko, eta erakundeak neurriak hartu behar ditu aukera hori errespetatzen dela bermatzeko; hau da, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan eman behar dio zerbitzua herritarrari, ahozko zein idatzizko harremanetan. Eta hori lortzea izango da plan honen helburu nagusia.

Hori lortzeko, normalizazio ekintzak diseinatu, aurrera eramane eta ebaluatu egingo dira, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak oinarri hartuta.

Era berean, hizkuntza egoera onenean dauden unitateetan urratsak egingo dira euskara ere lan hizkuntza izan dadin. Izan ere, aldundiko langileen hizkuntza gaitasuna gero eta handiagoa da, beraz, gero eta langile gehiago daude euskaraz lan egin dezaketenak.

## **3. Zeharkakotasuna**

Euskararen erabilera bultzatuko bada, aldundiko arduradun politiko zein tekniko guztiek bere gain hartu beharko dituzte euskara sustatzeko aurrera eramango diren neurriak, nork bere mailan. Zuzeneko eragileak izango dira euskararen erabileraren bultzadan.

## **4. Planaren eragin epea eta eremua**

Planaren eragin epea bost urtekoa da, 2018ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte.

Planak Arabako Foru Aldundiko sail guztiei eragingo die. Hona hemen sailen zerrenda:

- Diputatu Nagusiaren Saila.
- Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saila.
- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila.
- Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila.
- Nekazaritza Saila.
- Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila.
- Ingurumen eta Hirigintza Saila.
- Euskara, Kultura eta Kirol Saila.
- Gizarte Zerbitzuen Saila.

## **5. Planaren egitura**

Aldundian euskararen erabilera sustatzeko helburuak plan estrategikoan biltzen dira eta dokumentu honen eranskinean agertzen dira.

Plan estrategiko hori Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diseinatutako aplikazioaren eremuan (Hizketa) oinarrituta egin da, eta honako hauek zehazten dira bertan:

- Plangintzaldirako helburuak.
- Helburu bakoitzaren adierazleak.
- Adierazle bakoitzaren abiapuntuko egoera.
- Adierazle bakoitzaren aurreikuspena plangintzaldiaren bukaerarako.

Helburu horiek lortzeko abian jarriko diren ekintzak urteko kudeaketa planetan jasoko dira.

Aipatzekoa da abiapuntuko egoera zein den jakiteko, lehenengo aldiz egin dela Aldundian diagnostiko zehatz bat, zeinaren bidez adierazle guztiak zehaztu baitira eta bost urterako aurreikuspen xehea egin.

**6. Hizkuntza egoera VI. plangintzaldiaren hasieran**

6.1 Lanpostuak, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak.

86/1997 Dekretuak xedatzen duenez, lanpostu bakoitzari, bertan jarduteko gaitasuna kontuan harturik, hizkuntza eskakizuna ezarriko zaio, eta, hala badagokio, derrigortasun data ere bai.

Erakundearen ikuspegi orokorra erakustearren, ondoko taulan aurkezten da VI. plangintzaldiaren hasieran dagoen lanpostu kopurua eta dagozkien hizkuntza eskakizunak:

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA (HE)	LANPOSTUAK	%
1	77	8
2	456	49
3	267	29
4	123	13
4TG	12	1
<b>Guztira</b>	<b>935</b>	<b>100</b>

Hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak (DD) honela daude banatuta, 4TG hizkuntza eskakizuna (teknikari gaitua) duten lanpostuak kenduta:

HE	LANPOSTUAK	DD DUTEN LANPOSTUAK	%
1	77	3	1
2	456	214	62
3	267	120	35
4	123	7	2
<b>Guztira</b>	<b>923</b>	<b>344</b>	<b>100</b>

6.2 Betetze maila.

Aurreko plangintzaldietan betetze mailari buruz aurkeztu izan diren datuak, lanpostuen titularraren datuak izan dira. Oraingoan, berriz, lanpostuetan diharduten langile guztien egiaztatzetik atera dira, erakundearen irudi errealagoa emateko asmoz.

Hasteko, derrigortasun data duten lanpostuen betetze maila aurkezten da, eta horretarako, erakusten da sail bakoitzean zenbat lanpostu dauden okupatzailerik gabe, zenbat lanposturen langilek egiaztatu duten lanpostuaren hizkuntza eskakizuna eta zenbatek ez duten egiaztatu.

SAILA	DD DUTEN LANPOSTUAK	OKUPATZAILERIK GABEKO LANPOSTUAK	EGIAZTATU DUTENAK	%	EGIAZTATU GABEAK	%
Diputatu Nagusia	27	2	23	92	2	8
Ekonomia Garapena eta Lurralde Oreka	12	0	11	91,7	1	8,3
Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak	91	5	78	90,7	8	9,3
Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapena eta Foru Administrazioa	38	4	32	94,1	2	5,9
Nekazaritza	54	0	47	87	7	13
Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna	31	1	25	83,3	5	16,7
Ingurumena eta Hirigintza	18	1	15	88,2	2	11,8
Euskara, Kultura eta Kirola	72	5	61	91	6	9
Gizarte Zerbitzuak	1	1	—	—	—	—
<b>Guztira</b>	<b>344</b>	<b>19</b>	<b>292</b>	<b>89,8</b>	<b>33</b>	<b>10,2</b>

Hurrengo taulan aurkezten diren datuetan ez zaio erreparatzen derrigortasun datari: lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenen kopuruak agertzen dira, 4TG hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak kenduta.

HE	LANPOSTUAK	OKUPATZAILERIK GABEKO LANPOSTUAK	EGIAZTATU DUTENAK	%	EGIAZTATU EZ DUTENAK	%
1	77	8	40	58	29	42
2	456	13	188	42,4	255	57,6
3	267	23	143	58,6	101	41,4
4	123	13	6	5,5	104	94,5
<b>Guztira</b>	<b>923</b>	<b>57</b>	<b>377</b>	<b>43,5</b>	<b>489</b>	<b>56,5</b>

Aurreko plangintzaldiaren hasierako datuekin alderatuz gero, ikusten da nabarmen igo dela langileen hizkuntza gaitasuna (8,6 puntu). Gora egitearen arrazoiak honako hauek dira: bitarteko funtzionarioen datuak ere hartu izana, erretiroa hartzen dutenen partez belaualdi euskaldunagoak sartzea eta langileak euskalduntzearen ahalegina.

## 7. Unitateen izaera

Hona hemen AFAko unitateen izaera, 86/1997 Dekretuko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### Diputatu Nagusiaren Saila

#### Gizarte izaera

	IZAERA
Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritza	Gizarte izaera
Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko Zerbitzua	Orokorra
Lege Aholkularitza Zerbitzua	Gizarte izaera
Araubidezko Garapenerako eta Biltzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzua	Gizarte izaera
Arabako Lege eta Administrazio Erakundea	Gizarte izaera
Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzua	Jendaurrekoa
Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzua	Gizarte izaera
Komunikazio Zuzendaritza	Gizarte izaera
Gizarte eta Erakunde Harremanen Zerbitzua	Jendaurrekoa

**Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saila**

## Gizarte izaera

	IZAERA
Lurralde Oreken Zuzendaritza	Gizarte izaera
Toki Administrazioaren Zerbitzua	Gizarte izaera
Laguntza Juridikoaren Atala	Gizarte izaera
Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzua	Gizarte izaera
Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzua	Gizarte izaera
Ekonomia Garapenaren Zuzendaritza	Gizarte izaera
Ekonomia Garapenaren Zerbitzua	Gizarte izaera

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**

## Gizarte izaera

	IZAERA
Ogasun Zuzendaritza	Gizarte izaera
Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzua	Jendaurrekoa
Erroldea Kudeaketako eta Jakinarazpenetako Unitatearen Atala	Jendaurrekoa
Zergak Ikuskatzeko Zerbitzua	Gizarte izaera
1. Ikuskatzaile Taldea	Gizarte izaera
2. Ikuskatzaile Taldea. Enpresa Handien Unitate Integrala	Gizarte izaera
3. Ikuskatzaile Taldea	Gizarte izaera
Zergak Ikuskatzeko Administrazio Kudeaketa Atala	Gizarte izaera
Zerga Araudiaren Zerbitzua	Orokorra
Zerga Sarrerak Kudeatzeko Zerbitzua	Orokorra
Zuzeneko Zergen Zerbitzua	Jendaurrekoa
Sozietate eta Ez-egoiliarren gaineko Zergen eta Atxikipenen Atala	Jendaurrekoa
Pertsona Fisikoen Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen Atala	Jendaurrekoa
Zeharkako Zergen Zerbitzua	Jendaurrekoa
Ondare Eskualdaketa, eta EJDen eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergen Atala	Jendaurrekoa
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Zerga Berezien Atala	Jendaurrekoa
Udal Zerga eta Katastro Zerbitzua	Jendaurrekoa
Dirubilketa Zerbitzua	Gizarte izaera
Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza	Orokorra
Kontuhartzailletza eta Kontrol Zerbitzua	Orokorra
Auditoretza eta Kontrol Atala	Gizarte izaera
Kontabilitate Zerbitzua	Orokorra
Finantza eta Ondare Kontabilitateko Atala	Orokorra
Aurrekontuetarako eta Erakundeen Arteko Konpromisoetarako Zerbitzua	Orokorra
Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua	Orokorra
Finantza Kudeaketa Zerbitzua	Gizarte izaera
Ondare Zerbitzua	Gizarte izaera
Europako Gaietarako Zerbitzua	Gizarte izaera

**Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila****Gizarte izaera**

	<b>IZAERA</b>
Funtzio Publikoko Zuzendaritza	Gizarte izaera
Funtzio Publikoko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua	Gizarte izaera
Giza Baliabideen Zerbitzua	Gizarte izaera
Aukeraketa eta Lege Araubidearen Atala	Gizarte izaera
Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzua	Gizarte izaera
Euskara Zerbitzua	Euskara
Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza	Gizarte izaera
Antolaketa Zerbitzua	Orokorra
Informatika Zerbitzua	Gizarte izaera
Laborategi Orokorreko Zerbitzua	Berezia
Ibilgailuen Zerbitzua	Berezia
Mantentze Zerbitzua	Berezia
Moldiztegi Zerbitzua	Berezia
Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua	Orokorra
Langile Laguntzaileen Zerbitzua	Orokorra
Arkitektura Zerbitzua	Orokorra
Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza	Gizarte izaera
Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzua	Gizarte izaera

**Nekazaritza Saila****Gizarte izaera**

	<b>IZAERA</b>
Nekazaritza Zuzendaritza	Gizarte izaera
Nekazaritza Garapenerako Zerbitzua	Gizarte izaera
Nekazaritza Egituraren eta Landa Azpiegituraren Atala	Gizarte izaera
Nekazaritza Sustapenaren Atala	Gizarte izaera
Abeltzaintza Zerbitzua	Gizarte izaera
Abelazkuntza Atala	Gizarte izaera
Zuzeneko Laguntzen Zerbitzua	Gizarte izaera
Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua	Gizarte izaera
Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua	Orokorra
Administrazio Kudeaketa Atala	Gizarte izaera
Mendi Zerbitzua	Gizarte izaera
Basogintza Atala (Ekialdea)	Jendaurrekoa
Basogintza Atala (Mendebaldea)	Jendaurrekoa
Basogintza Atala (Erdialdea)	Jendaurrekoa
Ehiza eta Arrantza Atala	Jendaurrekoa

**Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila**

## Gizarte izaera

	<b>IZAERA</b>
Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritza	Gizarte izaera
Errepide Zerbitzua	Gizarte izaera
Errepideak Hobetzeko Atala	Gizarte izaera
Bide Segurtasun eta Ustiatze Atala	Gizarte izaera
Topografia Atala	Orokorra
Bidezaintza Atala	Gizarte izaera
Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua	Orokorra
Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Bulegoa	Gizarte izaera
Lege eta Administrazio Zerbitzua	Orokorra
Desjabetzapen Atala	Gizarte izaera
Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua	Gizarte izaera
Ikuskatzailezako eta Baimenen Kudeaketako Atala	Jendaurrekoa

**Ingurumen eta Hirigintza Saila**

## Gizarte izaera

	<b>IZAERA</b>
Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza	Gizarte izaera
Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzua	Gizarte izaera
Ingurumen Ebaluazioaren Atala	Gizarte izaera
Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua	Orokorra
Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	Gizarte izaera
Obra Hidraulikoen Atala	Berezia
Ingurumen Prebentzioaren Atala	Gizarte izaera
Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua	Gizarte izaera
Hirigintzako Planeamendu, Kudeaketa eta Diziiplina Atala	Gizarte izaera
Lurralde Informazioaren Atala	Gizarte izaera
Natura Ondarearen Zerbitzua	Gizarte izaera
Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atala	Gizarte izaera

**Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

## Gizarte izaera

	<b>IZAERA</b>
Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza	Gizarte izaera
Agiritegi Zerbitzua	Gizarte izaera
Museo eta Arkeologia Zerbitzua	Jendaurrekoa
Zaharberrikuntza Zerbitzua	Gizarte izaera
Kultura Etxeko Zerbitzua	Jendaurrekoa
Kultura Ekintza Zerbitzua	Gizarte izaera
Kultura Azpiegitura Atala	Gizarte izaera
Kirol Zerbitzua	Gizarte izaera
Euskararen Foru Zerbitzua	Euskara
Euskara, Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua	Gizarte izaera
Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	Gizarte izaera

**Gizarte Zerbitzuen Saila**

## Gizarte izaera

	<b>IZAERA</b>
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza	Gizarte izaera
Gizarte Zerbitzuen Idazkaritzako Zerbitzua	Gizarte izaera
Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailetza Zerbitzua	Gizarte izaera

**8. Indize berria eta derrigortasun datak**

86/1997 Dekretuak 11. artikuluan xedatzen duenaren arabera, plangintzaldi bakoitzean nahitaez bete beharreko indizeak zehaztuko du erakunde bakoitzean zenbat lanposturi esleituko zaion derrigortasun data. Indize hori finkatzeko, plangintzaldia hasten denerako indarrean dagoen Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datuak erabiliko dira, betiere, herri administrazio bakoitzari dagokion jarduera esparrua kontuan hartuta.

VI. plangintzaldi honetan 2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika dago indarrean eta, euskaldunak + (ia euskaldunak/2) formulari jarraituz, AFAk nahitaez bete behar duen indizea ehuneko 38,38 da. Beraz, 935 lanpostutik 358k izan behar dute derrigortasun data; beraz, 15 data esleitu behar dira.

Derrigortasun datak esleitzeko irizpideak.

Nahitaez bete beharreko indizeak, halaber, erakundeak gutxienez bete behar dituen helburuak ezartzen ditu. AFARI honakoak dagozkie:

1. Atal elebidunak ezartzea.

– Jendaurreko administrazio unitateetan.

– Gazteriarekin harreman zuzena duten unitateetan (AFAREN kasuan, bere erabilera plana duen Gazteriaren Foru Erakundean).

– Gizarte izaerako unitateetan.

2. Erabilera mikroplanak ezartzea izaera orokorreko unitateetan.

Derrigortasun data zein lanposturi esleitu erabakitzeko orduan, V. plangintzaldian izendatutako atal elebidunak trinkotu nahi izan dira. Guztira zazpi data esleitu dira, eta hala, atal elebidunen lanpostuen % 100ek izango dute derrigortasun data.

Gainerako datak esleitzeko, lanpostua kokatuta dagoen unitatearen izaera eta lanpostuaren beraren izaera aztertu da, eta hurrenkera hau lehenetsi da:

– Jendaurrekoak.

– Gizarte izaerakoak.

Derrigortasun data berrien proposamena kontuan hartuta, hauxe da banaketa:

HE	LANPOSTUAK	% LANPOSTU GUZTIEKIKO	DD DUTEN LANPOSTUAK	% LANPOSTUEKIKO, HEKA
1	77	8	3	4
2	455	49	220	48
3	268	29	128	48
4	123	13	8	7
4TG	12	1	—	
<b>Guztira</b>	<b>935</b>	<b>100</b>	<b>359</b>	

## 9. Atal elebidunak, erabilera mikroplanak eta lehentasunak

### 9.1 Atal elebidunak.

86/1997 Dekretuak atal elebidunaren definizioa ematen du 15. artikuluan:

1. Beren zereginak Euskal Autonomia Elkarteko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira administrazio-atal elebidunak.

Helburua dute, beraz, herritarrari ahoz zein idatziz zerbitzu elebiduna ziurtatzeaz gain, eus-kara ere lan hizkuntza izateko pausoak ematea.

Atal elebidun izendatuko dira honako baldintzak betetzen dituzten unitateak:

1. Unitatea osatzen duten langileen ehuneko 80k dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea. Laugarren hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak hiru-garren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea.

2. Unitatearen burua den langileak (zerbitzuburuak edo atalburuak) dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea.

Hauek dira VI. plangintzaldiaren hasieran baldintza horiek betetzen dituzten atalak:

- Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzua.
- Ondare Zerbitzua.
- Funtzio Publikoko Idazkaritza Teknikoa.
- Nekazaritza Sustapenaren Atala.
- Abeltzaintza Zerbitzua.
- Abelazkuntza Atala.
- Mendi Zerbitzua.
- Topografia Atala.
- Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atala.
- Bibat Museoa eta bulego teknikoak, Museo eta Arkeologia Zerbitzukoak.
- Kultura Ekintza Zerbitzua.
- Kultura Azpiegitura Atala.

Unitateen hizkuntza egoera aldizka aztertuko da plangintzaldian zehar, langileen joan-eto-riengatik beste atal elebidunik izendatzeko aukerarik badagoen ikusteko, eta aurretik izenda-tutakoek baldintzak betetzen jarraitzen duten egiaztatzeko.

### 9.2 Erabilera mikroplanak.

Administrazio unitate batek elebidun izateko baldintzak betetzen ez baditu baina betetzetik gertu badago, erabilera mikroplanak baliatuko dira bertan. Lanpostu solteetan ere baliatuko dira erabilera mikroplanak.

Horien bitartez ahalegina egingo da elebitasuna bermatzeko eta euskararen eguneroko erabileran aurrerapenak egiteko.

### 9.3 Lehentasunak.

Administrazio unitateak identifikatuta, lehentasun hurrenkera honi jarraituko zaio normali-zazio neurriak aurrera eramateko orduan:

1. Herritarrekin ahozko edo idatzizko ohiko komunikazioa dutenak.
2. Beste administrazioekiko harremanetan jarduten dutenak.
3. Erakundearen barruan zerbitzu klabeak eta transbertsalak ematen dituztenak.

### 10. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

86/1997 Dekretuak dio erabilera planetan azalduko dela hizkuntza ofizialak nola tratatu behar diren administrazioko esparruetan. Irizpideak ezinbestekoak dira planaren urratsak egiteko eta helburuak lortzeko. Beharrezkoa da langile eta unitate guztiek jakitea zer egin euskaraz, nola, noiz, norekin...

Une honetan, V. plangintzaldiko euskara planean zehaztutako hizkuntza irizpideak daude indarrean. Plangintzaldian berrikusi egingo dira eta berridatzi egoki jotzen direnak.

Sail eta unitate bakoitzak izango du bere eskumenpeko gaitan hizkuntza irizpideak beteazteko ardura.

### 11. Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hartarako diseinatutako Hizketa aplikazioa erabiliko da planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Ebaluazioa plangintzaldiaren bukaeran (2022an) egingo da plan estrategikoan zehaztutako adierazleen arabera.

Ebaluazio horren berri aldundiko arduradun politikoei, goi kargudunei, arduradun teknikoei eta langileen ordezkariak osatutako Euskara Batzordeari emango zaie.

Bost urteotan egingo diren ekintzak planifikatzeko eta gobernatzeko tresnak izango dira kudeaketa planak. Bakoitzean zehaztutako ekintzak baloratu eta, beharrezkoa bada, egokitu egingo dira hurrengo kudeaketa planari begira.

### 12. Baliabideak

Giza baliabideak eta baliabide materialak ezinbesteko tresnak dira Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana gauzatzeko.

Giza baliabideei dagokienez, Euskara Zerbitzuko normalizazio taldeak sail guztietako solaskideekin batera lan egingo du plangintzaldi osoan zehar.

Bestalde, sailek eta zuzendaritzek beren aurrekontuetan behar diren partidak sortu edo egokituko dituzte, kudeaketa planetan jasotako ekintzak aurrera eramateko.

Euskara Zerbitzuak ere, euskalduntzea, ALET programa, itzulpenak eta bestelakoak aurrera eramateko baliabideak izango ditu -eta hartarako behar diren kontratuak egingo ditu- IVAPekiko hitzarmenaren bidez eskuratzen dituen gain.

### 13. AFAREN erakunde autonomoak

Arabako Foru Aldundiak hiru erakunde autonomo ditu: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Gazteriaren Foru Erakundea eta Arabako Foru Suhiltzaileak. Horietako bakoitzak, 86/1997 Dekretuaren 2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, beren euskararen erabilera normalizatzeko planak egin eta onartu behar dituzte.

### 14. Sozietate publikoak

Hauek dira AFAREN sozietate publikoak:

– Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailari atxikita:

Araba Garapen Agentzia SA

Naturgolf SA

Arabako Lanak SA

– Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailari atxikita:

Arabako Kalkulu Gunea SA

– Nekazaritza Sailari atxikita

Aldalur Araba SL

– Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari atxikita:

ARABAT-Arabako bideak.

– Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikita:

Indesa 2010 SL

Sozietate publikoek dituzten hizkuntza betebeharrak 86/1997 Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian daude zehazturik:

Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioei lotuta egonik zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, nahita nahiez euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekin harreman zuzenak dituzten zerbitzuetan.

Helburu hori betetzeko, elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publiko horiek, Dekretuak ezarritako irizpideak erabilita, erakundeetako bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezen hartu beharreko neurriak hartuko dituzte.

Aipaturikoak gauzatzeko, AFaren sozietate publikoek foru aldundiak zerbitzua bere baliabideez ematerakoan bete behar dituen hizkuntza baldintza berberak beteko dituzte, eta horretarako neurriak zehaztuko.

### **15. Komunikazioa**

Berriazko komunikazio eta informazio lana egingo da aldundiko kide guztiek plana ezagutu dezaten eta plana gauzatzekoan parte senti daitezen.

Mezu nagusia: administrazioak hizkuntza aukera bermatu behar die herritarrei, beren eskubidea baita. Horretarako, langile guztiak, izan elebidunak edo elebakarrak, planaren parte inportante dira; hizkuntza gaitasuna dutenek, hala dagokionean, funtzio komunikatiboa euskaraz beteko dute, eta ez dutenek, dagokien ardura bere gain hartuko dute funtzio komunikatiboa euskaraz bidera dadin.

Komunikazio prozesu horretan ezinbestekoa da arduradunen inplikazioa; horretarako, planaren komunikazio eta informazio lana erraztuko dute, eta hizkuntza irizpideak bete eta betearaziko dituzte, planaren oinarria baitira.

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN PLAN ESTRATEGIKOAK EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO  
2018-2022 PLANGINTZALDIA**

ARDATZAK, ELEMENTUAK ETA ADIERAZLEAK	HASIERAN		AURREKUSITAKOAK		OHARRAK
	EUSKARA %	ELEBITAN %	EUSKARA %	ELEBITAN %	
<b>ZERBITZU-HIZKUNTZA</b>	<b>Helburua:</b> euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarreko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko				
<b>1. ERAKUNDEAREN IRUDIA</b>	<b>Helburua:</b> jendaurreko guneetan jarrera proaktiboa erakustea herritarrei euskara erabiltzera gonbidatzeko (Txantxangorria eta bestelako identifikagarriak erabiltza...)				
<b>1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak</b>	<b>Helburua:</b> jendaurreko errotulazioa euskaraz ere egotea				
1.1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	0	95	0	100	
<b>1.2. Marketinga, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak</b>	<b>Helburua:</b> marketingean, publizitatean eta jendaurreko ekitaldi guztietan euskararen presentzia eta erabilera, era batera edo bestera, bermatzea				
1.2.1. Argitalpenak, iragarriak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak	3	72	5	80	
1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak	18		2,5		Herritarreko bilera eta aurkezpen irekiak neurtu dira
1.2.3. Herritarri begira antolatutako ikastaro eta jarduerak			20		Alderdi hau ez da diagnosian jaso
<b>1.3. Ingurune digitala</b>	<b>Helburua:</b> webgunean eta sare sozialetan edukiak euskaraz ere egotea				
1.3.1. Webgune eta sare sozialen edukia	20	38	20	50	
<b>2. HERRITARREKIKO HARREMANAK</b>	<b>Helburua:</b> zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin				
<b>2.1. Herritarreko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan.</b>	<b>Helburua:</b> herritarreko harremanetarako idatzkiak euskaraz ere egotea				
2.1.1. Idatzizko harremanak	3	45	3	60	
2.1.2. Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	43	28	100	0	

ARDATZAK, ELEMENTUAK ETA ADIERAZLEAK	HASIERAN		AURREKUSITAKOAK		OHARRAK
	EUSKARA %	ELEBITAN %	EUSKARA %	ELEBITAN %	
<b>2.2. Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua emateko orduan.</b>	<b>Helburua:</b> herritarrekiko harremanetan ahozko arreta euskaraz ere egitea				
2.2.1. Harrera	24		0	100	
2.2.2. Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	14		18		
2.2.3. Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	50		100	0	
<b>LAN-HIZKUNTZA</b>	<b>Helburua:</b> euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan				
<b>3. BARNE HARREMANAK</b>	<b>Helburua:</b> komunikazioan eta lan-tresnetan euskara erohikotasunez erabiltzea				
<b>3.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisala</b>	<b>Helburua:</b> bulegoko materialak, paper gauzak, kafe-makinak etab. euskaraz egotea				
3.1.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisala	2	5	5	10	
<b>3.2. Barne harremanak idatziz</b>	<b>Helburua:</b> idatzizko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea				
3.2.1. Informaziorako edota komunikaziorako tresnak	0	60	0	75	
3.2.2. Lan-bileretako idatziak	4	10	4	15	
3.2.3. Erakundearen barne harremanetarako idatziak	3	25	3	30	
<b>3.3. Barne harremanak ahoz</b>	<b>Helburua:</b> ahozko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea				
3.3.1. Erakundearen barneko lan-bileretako ahozkoak	9		11		
3.3.2. Erakundearen barneko telefonozko harremanak	18		22		
3.3.3. Erakundearen barneko aurrez aurreko harremanak	18		22		

ARDATZAK, ELEMENTUAK ETA ADIERAZLEAK	HASIERAN		AURREKUSITAKOAK		OHARRAK
	EUSKARA %	ELEBITAN %	EUSKARA %	ELEBITAN %	
<b>3.4. Baliabide informatikoak</b>	<b>Helburua:</b> euskarri informatikoen euskarazko bertsioa ere egotea eta horiek erabiltzen direla sustatzea				
3.4.1. Euskarazko bertsioen instalazio-kopurua	0	100	0	100	Kontuan hartu dira sistema eragilea eta ofimatikako programak
3.4.2. Euskarazko bertsioen erabilera	13		18		
<b>4. PERTSONEN KUDEAKETA</b>	<b>Helburua:</b> pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea				
<b>4.1. Pertsonen kudeaketa</b>	<b>Helburua:</b> euskararen ahozko eta idatzizko erabilera areagotzea giza baliabideen kudeaketan				
4.1.1. Pertsonen kudeaketa	0	25	0	40	
<b>4.2. Laneko prestakuntza</b>	<b>Helburua:</b> euskarazko prestakuntzan parte hartzea areagotzea				
4.2.1. Laneko prestakuntza	12		15		
4.2.2. Ikastaroen kudeaketa	15	55	15	65	
<b>5. KANPO HARREMANAK</b>	<b>Helburua:</b> euskararen erabilera areagotzea kanpoko erakundeetara harremanetan				
<b>5.1. Administrazioa</b>	<b>Helburua:</b> euskararen erabilera areagotzea herri administrazioetara harremanetan				
5.1.1. Administrazioetara idatzizko harremanak	4	49	4	55	
5.1.2. Administrazioetara ahozko harremanak	21		25		
<b>5.2. Erakunde pribatuak: finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.</b>	<b>Helburua:</b> euskararen erabilera areagotzea hornitzaileetara harremanetan				
5.2.1. Erakunde pribatuetara idatzizko harremanak	4	21	4	25	

ARDATZAK, ELEMENTUAK ETA ADIERAZLEAK	HASIERAN		AURREKUSITAKOAK		OHARRAK
	EUSKARA %	ELEBITAN %	EUSKARA %	ELEBITAN %	
5.2.2 Erakunde pribatuak ahozko harremanak	13		18		
<b>6. KUDEAKETA SISTEMA</b>	<b>Helburua:</b> euskararen kudeaketa aurreratu bermatzea				
<b>6.1. Estrategia: hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea</b>	<b>Helburua:</b> euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzea				
6.1.1. Erakundearen kudeaketa euskararen kudeaketak duen txertatze-maila		10		20	
6.1.2. Euskara sortze hizkuntza		16		21	Kontuan hartu da ekoizpen elebiduna
6.1.3. Dokumentuen estandarizazioa		70		100	
<b>6.2. Herritarrak eta zerbitzuak: hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketa eta zerbitzuen garapeneren kudeaketa integratzea</b>	<b>Helburua:</b> erakundeak zerbitzuen prozesuetan hizkuntza txertatzea				
6.2.1. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen betetze maila		25		35	
<b>6.3. Pertsonak: hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketa integratzea</b>	<b>Helburua:</b> hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketa integratzea				
6.3.1. Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak		44		50	
6.3.2. Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna		25			Ahozko gaitasuna
6.3.3. Langileen eta erakunde-ordezkarien balorazio positiboaren portzentajea erabilera planarekiko		42		50	
6.3.4. Langile eta erakunde ordezkarien parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan		16		20	